# Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

# Mutriku
Euskal itsasoaren talaia
Atalaya al mar de los vascos



## ANDRE MARIA JASOKUNDEAREN ELIZA
## IGLESIA PARROQUIAL DE NTRA. SRA. DE LA ASUNCIÓN


1

**MONUMENTU NAZIONALA**

Zalantzarik gabe, Gipuzkoako arkitektura neoklasikoaren eredu onenetakoa da. Silvestre Perez arkitektuak proiektatuta, 1803 urtean hasi ziren eraikitze-lanak.

Lehenengo harria garaiko alkate Kosme Damian Txurruka Elorza jaunak ipini zuen eta lanak 1843an amaitu ziren.

Elizako kaperetako batean Zurbaranen mihisea dago.

Eliza Euskadiko Monumentu gisa dago katalogatuta.

**MONUMENTO NACIONAL**

Es, sin duda, uno de los mejores ejemplos de la arquitectura neoclásica de Gipuzkoa. Fue proyectada por el arquitecto Silvestre Pérez, comenzando sus obras en el año 1803.

Colocó su primera piedra el entonces alcalde Cosme Damián Churruca y Elorza, terminándose la obra en 1843.

En una de sus capillas se encuentra un lienzo atribuído a Zurbarán.

Este templo está catalogado como Monumento Nacional de Euskadi.

## GALDONA JAUREGIA
## CASA GALDONA


2

**MONUMENTU HISTORIKO-ARTISTIKOA**

Ustez, Juan Galdona Muñoz sebillarrak, Mutrikuko prokuradore batzarkide 1684an eta Santiagoko Ordenako zaldunak, agindu zuen jauregia eraikitzea.

Barrokoko eraikuntza ederra eta sendoa da, burdin forjatuzko balkoiak, apaindutako teilatu-hegalak eta lehenengo solairuko kantoian armarri ederra duena.

**MONUMENTO HISTÓRICO-ARTÍSTICO**

Se cree que su construcción fue ordenada por Juan de Galdona y Muñoz, natural de Sevilla, procurador juntero de Motrico en 1684 y caballero de la Orden de Santiago.

Es una bella y sólida construcción barroca con balcones forjados, ornamentados aleros y un bello escudo de armas en la esquina de su primera planta.

## TXURRUKARI MONUMENTUA
## MONUMENTO A TXURRUKA


3

Garai batean Arriturriaga zeritzon Txurruka enparantzaren erdi-erdian dago. Oinarriaren proiektua Nikomedes Mendibil arkitektuak gauzatuta eta estatua Marcial Agirrek landuta, monumentua 1865ean inauguratu zen.

Kosme Damian Txurruka Elorza Mutrikuko alkate, zientzia-gizona eta Itsas-Armadako brigadierra izan zen. 1805ean Ingalaterraren aurkako guda hasi zenean, San Juan Nepomuceno itsasontziaren buru izanda, Trafalgarreko itsas-guduan hartu zuen parte Nelsonen itsas-armadaren kontra eta bertan hil zen, kanoikada batek jota.

Está situado en el centro de la plaza Churruca, antiguamente llamada de Arriturriaga. El proyecto del pedestal es obra del arquitecto Nicomedes de Mendibil y la estatua la esculpió Marcial Aguirre, siendo inaugurada en 1865.

Cosme Damián Churruca y Elorza fue científico y brigadier de la Armada, así como alcalde de Mutriku. Al iniciarse la guerra contra Inglaterra en 1805, mandaba el navío San Juan Nepomuceno, tomando parte en la batalla de Trafalgar contra la armada inglesa de Nelson, donde murió alcanzado por una bala de cañón.

## ARRIETAKUA JAUREGIA
## PALACIO ARRIETAKUA


4

**MONUMENTU HISTORIKO -ARTISTIKOA**

Erregeren Itsas Armadako Teniente Jeneral zen Antonio de Gaztañetak XVIII. mende hasieran, gaur egun Mutrikuko Kondeena den jauregi hau eraikitzea agindu zuen, Arrieta dorrearen hondakinen gainean.

Barrokoko harlanduzko eraikuntza honetan aipatzekoak dira landutako teilatu-hegalak, burdin forjatuzko balkoi ederrak eta Antonio de Gaztañetaren bi armarri ederrak, itsas-gizon, itsas-arkitekto eta arma-gizon lanbideei erreferentzia egiten dietenak.

**MONUMENTO HISTÓRICO-ARTÍSTICO**

Fue construido a principios del siglo XVIII por Antonio de Gaztañeta, Teniente General de la Armada Real. A finales del siglo XVIII pasó a ser propiedad de Cosme Damián Churruca, por entonces alcalde de la villa, y en la actualidad pertenece a los Condes de Motrico.

Es un noble edificio barroco de sillería en el que destacan los aleros tallados, sus bellos balcones de hierro forjado y un gran escudo de armas dividido, de Antonio de Gaztañeta, con referencias a su profesión como marino, arquitecto naval y hombre de armas.

mutriku TURISMOA · Geoparks · GLOBAL GEOPARKS NETWORK · deba BARRENA · EUSKADI BASQUE COUNTRY · EXPLORE SANSEBASTIAN REGION

## ZABIEL JAUREGIA
## PALACIO ZABIEL


5

**MONUMENTU HISTORIKO-ARTISTIKOA**

Barroko garaiko jauregi dotore hau Granada izenez ere ezagutzen da Granada de Egako Kondeen maiorazkokoa izan zelako.

Apaindutako fatxadan bigarren pisurainoko zutabeek inguratzen dute ate nagusia eta erdiko balkoian Zabieldarren armarria jasotzen du. Alboetako fatxadek aurrez zegoen eraikuntza baten elementu interesgarriak gorde dituzte.

**MONUMENTO HISTÓRICO-ARTÍSTICO**

Este hermoso palacio barroco es también conocido con el nombre de Granada, por haber formado parte del Mayorazgo de los Duques de Granada de Ega.

Su ornamentada fachada cuenta con una puerta principal enmarcada por columnas que llegan hasta el segundo piso. En el balcón central se sitúa el escudo de los Zabiel. Las fachadas laterales conservan interesantes elementos de una edificación anterior.

## LUARDO DORRETXEA
## CASA-TORRE LUARDO


6

Beharbada Ertaroko dorretxe hauxe da testu zaharretan aipatzen den Barrenkaleko dorrea.

Gotikoko ezaugarriduna, elementu arkitektoniko bikainenak ondokoak ditu: leiho bikiak, puntu erdiko arkudun bi ate, arku zorrotza duen ate bat eta ezkerreko fatxadako eskailera.

Quizás sea esta antigua casa-torre medieval la que en los antiguos textos aparece nombrada como torre de Barrenkale.

De inconfundible sabor gótico, sus elementos arquitectónicos más sobresalientes son las ventanas geminadas, dos puertas con arcos de medio punto y una en arco apuntado, así como la escalera de patín de su fachada lateral izquierda con acceso a la primera planta, la planta noble del edificio.

## OLAZARRA-MIZKIA JAUREGIA
## PALACIO OLAZARRA-MIZQUIA


7

**MONUMENTU HISTORIKO-ARTISTIKOA**

Lukas Olazarra Mizkia kapitainak agindu zuen jauregia eraikitzea, XVII. mende bukaeran. Harlanduzko fatxadadun eraikin bikain honetan, burdin forjatuzko balkoi handiak eta sarrerako atearen gainean dagoen Olazarratarren armarria dira aipagarriak.

**MONUMENTO HISTÓRICO-ARTÍSTICO**

Fue construido a finales del siglo XVII por el capitán D. Lucas de Olazarra y de Mizquia. De este edificio señorial con formidable fachada de sillería, destacan sus grandes balcones de hierro forjado y el gran escudo de la familia Olazarra, situado sobre la puerta de entrada. El edificio está rematado con un amplio alero con dibujos tallados entre las vigas, similares a los de la Casa Galdona.

## ATXUKALE


8

Atxukale portura begira dagoen begiraleku paregabea da, non garai batean arrantzaleak biltzen ziren ontzien joan-etorria zaindu eta itsasoaren egoera ikusteko.

Puntu honetan Evaristo Txurruka ingeniariaren bustoa aurkitzen dugu, Europan eta Hegoamerikan azpiegitura lan handien ardura izan zuena.

Mutrikuko portuaren handitze lana ere berak egin zuen (XIX) baina bere lanik ezagunena Bilboko kanpoko purtuaren eraikuntza da.

Atxukale es un mirador sobre el puerto, muy concurrido antaño por los marineros que se acercaban aquí para ver el estado de la mar y vigilar la salida y entrada de los barcos.

En este punto encontramos el busto del ingeniero mutrikuarra Evaristo Txurruka (1841-1917), responsable de grandes obras de infraestructura tanto en Europa como en Sudamérica. A él se debe el diseño de ampliación del puerto de Mutriku (XIX). Su obra más conocida fue la construcción del Puerto Exterior de Bilbao.

## MONTALIVET JAUREGIA
## PALACIO MONTALIVET


9

**MONUMENTU HISTORIKO-ARTISTIKOA**

Juan Jose Iturribalzaga Sanchez-Revata Montalivet Forjado, Oñako Baroiak, jauregi hau eraikitzea agindu zuen XVIII. mende bukaeran.

Jauregia Francisco de Iberok diseinatu zuen, Barroko gipuzkoarreko arkitektu adierazgarrienak.

**MONUMENTO HISTÓRICO-ARTÍSTICO**

La construcción de este palacio barroco del siglo XVIII fue ordenada por el capitán de navío José Iturribalzaga Sánchez-Revata Montalivet y Forjado, Barón de Oña.

Fue diseñado por Francisco de Ibero, el arquitecto más representativo del barroco guipuzcoano.

## BERRIATUA DORREA
## TORRE BERRIATUA


10

1543an hiria suntsitu zuen suteari erreferentzia eginez "Sulaingoa" izenez ere ezagutzen den eraikin hau txikiziotik onik atera ziren eraikuntzetako bat da.

Gipuzkoan gaur egunera arte gorde diren dorretxeetatik handiena da.

Mutrikuko kaiaren gainean egoki kokatuta, garai batean hiriko portuaren zaintza lanak bertatik egiten ziren.

Este edificio gótico, también conocido como "Sulaingoa", es decir, "anterior al fuego" (en referencia al incendio que arrasó la villa en 1543), es una de las pocas edificaciones que se salvaron de la destrucción.

Está considerada como la mayor de las casas-torre conservadas hasta nuestros días en Gipuzkoa.

Situada en una posición dominante sobre el puerto de Mutriku, en el pasado ejerció funciones de vigilancia del puerto de la villa.

## LOJA ZAHARRA
## ANTIGUA LONJA


11

Hiriko eraikin adierazgarrienetakoa dugu. Eraldatzeak izan dituen arren, oraindik ere XV. mendean kokatutako eraikin honek hasierako estilo gotiko-errenazentistari eusten dio.

Harri-hormaz eta harlanduz eraikia, fatxada nagusian puntu erdiko arku zabaleko arkupe handia dago.

Es uno de los edificios más emblemáticos de la villa. A pesar de haber sufrido transformaciones, todavía mantiene el estilo gótico-renacentista de sus orígenes, datados en el siglo XV.

Construido en mampostería y sillería, su fachada principal tiene un gran pórtico, con amplios arcos de medio punto.

## MOILAKO DORRETXEA
## CASA TORRE DEL MUELLE


12

Arrantzaleen etxe hau XVI. mendeko dorretxe hiritarra dugu.

Errenazimentuko eraikuntza honetan aipatzekoa da lehenengo solairurainoko harri-horma, puntu erdiko leiho bikiak eta puntu erdiko arkudun ate-leihoa duena.

Goiko pisuetan egurrezko balkoi korrituak ditugu.

Esta peculiar vivienda de pescadores es una casa-torre urbana del siglo XVI.

De este edificio renacentista destaca su fachada principal de mampostería vista hasta el primer piso, con ventanas geminadas de medio punto y una puerta-ventana en arco de medio punto.

Los pisos superiores cuentan con amplios balcones corridos de madera.

## BENTALEKUA MUSEOA
## MUSEO BENTALEKUA


13

Jadanik erabiltzen ez den portuko instalazio xume honen balioa etnografikoa da. Gela honetan egiten zen moilan lehorreratutako arrainaren enkantea eta errematea.

XX. mende hasierako eraikin honetan, gaur egun Kofradi-Zaharra ostatua ere badago. 2003tik aurrera "Mutriku eta itsasoa" erakusketa iraunkorra dago bertan.

Bentalekua museoa Turismo bulegotik antolatzen diren bisita gidatuen bidez bakarrik ikus daiteke.

El valor de esta sencilla instalación portuaria, hoy ya en desuso, reside en su interés etnográfico. Es en esta sala donde se realizaban la puja y subasta del pescado descargado en los muelles.

Construida a principios del siglo XX, hoy día comparte techo con las instalaciones del Hostal Kofradi-Zaharra. A partir de 2003, es sede de la Exposición Permanente "Mutriku y el mar".

El Museo Bentalekua se puede visitar sólo a través de las visitas guiadas que se organizan desde la oficina de turismo.

## NAUTILUS


14

Nautilus Interpretazio Zentroa bisitatzea denboran zehar bidaiatzea da, dinosauroak lurrean nagusi ziren eta amoniteak itsasoaren errege ziren garaira arte.

Zentro honetan erakusten diren fosil guztiak, Jesús M. Narvaez jaunak Euskal Kostaldeko Geoparkeko itsaslabarretatik erreskatatu ditu, konkretuki Mutrikuko Flysch Beltzetik, 30 urtetan zehar.

Euskal Herriko kostaldearen historia geologikoa ulertzeko Nautiluseko amonite bilduma oso garrantzitsua da eta Nautilusen gordetzen diren aleen forma eta tamaina batzuk ikusgarriak dira, eta oso gutxitan ikus daitezkeenak.

Visitar el Centro de Interpretación Nautilus, supone hacer un auténtico viaje en el tiempo, hasta una época en la que los Dinosaurios dominaban la tierra y los ammonites eran los reyes del mar.

Todos los fósiles que se exponen han sido recuperados de los acantilados del Geoparque de la Costa Vasca, concretamente en el Flysch Negro de Mutriku, por Jesús Mª Narvaez, a lo largo de 30 años.

Los fósiles del Nautilus son muy importantes para entender la historia geológica de la costa vasca, y los ammonites que encontramos en el centro tienen formas y tamaños espectaculares y muy poco frecuentes.

## SANTA KATALINA KOMENTUA
## CONVENTO DE SANTA CATALINA


15

Juan Otxoa Berriatuak, 1572 urtean lehenengo komentua sortu zuen Aritzeta dorretxean. 1683 urtean, Trentoko kontzilioak zehaztutako neurriak betez, komentua Berriatua dorretxera eraman eta, urteak beranduago, gaur egun dagoen tokira aldatu zen.

Barrualdean, elizako erretaula nagusia nabarmentzen da. Bertan flandeseko eskolako Van Dick-ek eta Rechorest-ek egindako bi koadro handi daude, Santa Katalinaren nekaldia eta Kristoren gurutziltzaketa irudikatzen dutenak.

El primitivo convento fue fundado en 1572 por Juan Ochoa de Berriatua y estaba ubicado en la casa-torre de Areiceta. En 1638, siguiendo las disposiciones marcadas por el Concilio de Trento, el convento se traslada a la torre de Berriatua.

Años más tarde cambia de nuevo su ubicación al lugar donde actualmente se encuentra. De su interior destaca el retablo principal de la iglesia con dos grandes cuadros de la escuela flamenca, obras de Van Dick y Rechorest, que representan el martirio de Santa Catalina y la crucifixión de Cristo.

## MUTRIKUKO OLATU PLANTA
## PLANTA DE OLAS DE MUTRIKU


16

2011ko uztailean inauguratu zen instalazioa eta energia elektrikoa sortzeko olatuen energia aprobetxatzen duen Europa osoko lehenengo planta komertziala da. 296 kW-ko guztizko potentzia duten 16 turbina ditu, olatuen eraginez aire konprimatua turbinatzen dutenak.

Olatua iristen denean, ura ganberan sartzen da eta barruko airea konprimatzen du, eta presioz ateratzen da goiko zulotik. Ateratzerakoan turbina bultzatzen du, eta hark, aldi berean, energia elektrikoa sortzen duen alternadorea birarazten du. Olatua erretiratzen denean, airea zurrupatzen du zulo beretik eta berriz bultzatzen du turbina, energia elektrikoa sortuz berriro ere.

Mutrikuko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak olatu plantara bisita gidatuak egiteko zerbitzu bat abiarazi dute. Instalazioa jendeari hurbiltzea du helburutzat zerbitzu horrek.

La instalación se inauguró en julio de 2011 y es la primera planta comercial en toda Europa que aprovecha la energía de las olas para generar energía eléctrica. Cuenta con 16 turbinas de 296 kW de potencia total, que turbinan el aire comprimido por la acción del oleaje.

Cuando la ola llega, el agua entra en la cámara y comprime el aire del interior, que sale a presión por el orificio superior. A su paso impulsa la turbina que, a su vez, hace girar el alternador que produce la energía eléctrica. Cuando la ola se retira succiona aire a través del mismo orificio y vuelve a impulsar la turbina generando nuevamente energía eléctrica.

El Ayuntamiento de Mutriku y el Ente Vasco de la Energía han puesto en marcha un servicio de visitas guiadas a la planta con el objetivo de acercar a la población la instalación.




Mutriku, Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkean kokatua, Gipuzkoako kostaldean dago. Bizkaiko mugan. XIII. mendearen hasieran sortu zen (1209) eta Hiri-Gutuna Alfonso VII.ak eman zion. Fernando III.ak eta Alfonso X.ak berretsi zituen bere eskubideak.

Bere kostaldeko itsas labarrak Flysch Beltza izenez ezagutzen dira eta orain dela 100 miloi urteko ammonite fosil ederrak gordetzen ditu altxor bezala. Itsaslabar hauek babestuta, Mutrikuko Hirigune Historikoa aurkitu dezakegu, gure kostaldean ongien mantendurik daudenetako bat.

Hirigunea portu gainean, desnibelean, kokatzen da eta erdi aroko egitura tipikoa dauka, hiru kale nagusiz osaturik, zeinak eskaileradun kale-zidor aldapatsuz lotzen diren. Egitura honek pertsonalitate eta xarma bereziak ematen dio herriari.

Monumentu-multzoa izendatuta dagoen Hirigune Historiko honek XV., XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako interes historiko-artistikodun etxe eta jauregiak gordetzen ditu bere baitan. Familia garrantzitsuen eta itsas-gizon trebeen ekintza gogoangarrien istorioak gordetzen ditu, baina baita portuaren inguruan bizi izan ziren arrantzale anonimo eta emakume kementsuenak ere.

Kaleetan barrena, Euskal Kostaldeko herri arrantzaleen historiaren zati bat zeharkatzen dugu Mutrikuko herriaren historia bere sorreratik itsasoari lotuta egon bait da. Bere portua –baleazale, arrantzalea eta korsarioa– historikoki herriaren ekonomiaren ardatza izan da. Kantauriko portu zaharrenetarikoa izanik, Mutrikuk aberastasun handiko garaiak ezagutu ditu, mendez-mende eraikin ederretako harrietan eta armarrietan islatu dena. Antzinatik itsasotik jasotako ondarea.

Mutriku, situada en el Geoparque UNESCO de la Costa Vasca, es la villa costera más occidental del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Fundada a comienzos del siglo XIII (1209), le fue otorgada la Carta Puebla por Alfonso VIII, siendo confirmados sus privilegios por Fernando III y Alfonso X.

Los acantilados de su costa, conocidos como Flysch Negro, guardan fabulosos tesoros en forma de ammonites que datan de hace más de 100 millones de años, y al abrigo de estos abruptos acantilados, se encuentra uno de los cascos históricos mejor conservados de nuestra costa. Su casco se asienta en desnivel sobre el puerto y presenta el trazado típico de las villas medievales desarrolladas en ladera, con tres calles principales unidas por callejas en fuerte pendiente con rampas y escaleras, que dotan a este pueblo de singular encanto y marcada personalidad.

El Casco Histórico de Mutriku, nombrado conjunto monumental, conserva casas y palacios de los siglos XV, XVI, XVII y XVIII, de notable interés histórico-artístico, que rememoran historias de importantes familias y hazañas de grandes marinos vascos, pero también aquellas de anónimos pescadores y enérgicas mujeres que vivieron en torno a su puerto.

Recorriendo sus calles, recorremos parte de la historia de los pueblos marineros de la Costa Vasca, ya que desde su fundación, la historia de la villa de Mutriku siempre ha estado ligada al mar. Su puerto -ballenero, pesquero e incluso corsario-, ha sido históricamente el centro de la economía de la villa. Mutriku, uno de los más antiguos puertos del Cantábrico, ha conocido épocas de floreciente riqueza económica, una riqueza que siglo tras siglo ha quedado reflejada en las piedras de sus nobles edificios. Una riqueza que siempre llegó del mar.

i-TOURBASK Turismo Bulegoen Euskal Sarea / Red Vasca de Oficinas de Turismo · surfing EUSKADI

**Turismo Bulegoa - Oficina de Turismo**
Txurruka Plaza, z/g - 20830 MUTRIKU
Tel.: 943 603 378
turismo@mutriku.net - **www.mutriku.eus**

- **Goi denboraldia/*Temporada alta:*** Astelehenetik igandera/*Lunes a domingo:* 10:00-14:00 / 16:00-19:00
- **Erdi denboraldia/*Temporada media:*** Astelehenetik ostegunera/*Lunes a jueves:* 10:00-14:00 • Ostiral eta larunbatak/*Viernes y sábados:* 10:00-14:00 / 16:00/18:00 • Igandeak/*Domingos:* 10:00-14:00
- **Behe denboraldia/*Temporada baja:*** Astelehenetik ostegunera/*Lunes a jueves:* 10:00-14:00 • Ostiral eta larunbatak/*Viernes y sábados:* 10:00-14:00 / 16:00/18:00 • Igandea/*Domingo:* Itxita/*Cerrado*

Gutxi gorabeherako ordutegia / *Horario aproximado.* Eguneratutakoa / *Actualizado en:* **www.mutriku.eus**

**Mutrikuko Enigma**
**El Enigma de Mutriku**
Google play · App Store

**Interpretazio panelak/Paneles interpretativos:**

1. TXURRUKA PLAZA
2. ARRIETAKUA JAUREGIA
3. ZUBIAGA PLAZA
4. SANTA KATALINA
5. OLAZARRA MIZKIA
6. BEHEKO PLAZA
7. ATXUKALE
8. MOILAKO DORRETXEA
9. KOFRADI ZAHARRA
10. LONJA ZAHARRA
11. PORTUA
12. BERRIATUA DORRETXEA
13. ASTIGARRIBIA (5km)

Udaletxea/*Ayuntamiento*
Oficina de Turismo/*Turismo Bulegoa*
Larrialdi telefonoa/*Teléfono de emergencia*
Udaltzaingoa/*Policía Municipal*
Posta/*Correos*
Osasun Zentroa/*Ambulatorio*
Botika/*Farmacia*
Bus geltokia/*Parada Bus*
Taxi
Parking
Igogailuak/*Ascensores*
Hotelak/*Hoteles*
Pentsioak/*Pensiones*
Nekazalturismoa/*Agroturismo*
Kanpina/*Camping*
Pilotalekua/*Frontón*
Untziratzeko pantalana/*Pantalán de embarque*
Urpeko igeriketa ikastaro eta irteerak/ *Cursos y salidas de buceo*
Euskadiko Kirol Portuak/ *Puertos Deportivos de Euskadi*
Arrantzaleen Kofradia/*Cofradía de pescadores*
Akuikultura Eskola/*Escuela de Acuicultura*
Flysch beltza/*Flysch negro*
Begiratokia/*Mirador*
Interpretazio panela/*Panel interpretativo*
Kutxazaina/*Cajero automático*
Merkatua/*Mercado*
Olatu plantako bisitak: elkartze puntua *Visitas a la planta de olas: punto de encuentro*
Hondartza/*Playa*

© Mutrikuko Udala - Egilea: Kaioa a.s.p. (Deba)